

PROYECTO
MOSAICO DE SONIDOS

“Soinu Mosaikoa” proiektua

Asociación Española de Orquestas Sinfónicas (AEOS)
Plena Inclusión
Fundación BBVA



Fundación **BBVA**



“Soinu-Mosaikoa” ezagutzeko 10 gako

1. Espainiako Orkestra Sinfonikoen Elkartearen (AEOS) proiektua da.
2. 14 orkestra sinfonikok esku hartzen dute.
3. 2016. urtean zehar, berrehundik gora musikari aritu dira adimen edo garapenaren urritasuna duten 300 pertsonen zuzendutako tailerretan.
4. Gure lagun dira Plena Inclusión federazioa eta BBVA Fundazioa.
5. Parte-hartzaileek Emilio Aragónek sortutako “La flor más grande del mundo” (munduko lorarik handiena) musika-lanaren inguruan egin dute lan. Doinu horrek izenburu bera duen José Saramagoren ipuina du oinarri.
6. Jatorrizko musikari gehitu zaizkion mikro-konposizioak sortu dituzte.
7. Sortuko diren hamalau musika-lanak horien egileek interpretatuko dituzte, orkestran zein eszenan integraturik, Abonu kontzertuetan.
8. Azken kontzertu horietan, mila musikari baino gehiago ariko dira guztira.
9. Prozesu osoa Ángeles Muñizen “Soinu-Mosaikoa” pelikulan jasoko da.
10. Proiektuan aholkulari dihardutenen artean daude musikoterapeutak, aurrez horrelako esperientziatan eskarmentudun musikariak, urritasuna duten pertsonen elkartek, pertsona hauekin lan egiten duten aktoreak, kultur bitartekaritzan adituak eta abar.

“Soinu Mosaikoa” egitasmoan, soinu zein isiluneekin, jarrerekin, begiradekin, ukitzeekin, irudiekin nahiz ehundurekin lan egiten dugu, eta baita zapore eta koloreekin ere. Kontzertu honen bidez lagundu nahi diegu adimen edo garapen urritasuna dutenen gizarteratzearen alde lanean diharduten erakunde zein pertsonen.

Haur baten irmotasunari esker berpiztu eta “Munduko lorarik handiena” bilakatzen den lorea bezala, gure musikak bai bihotzera eta bai arrazoimenera heldu nahi du zuzenean, aurreiritziak deseginez, aukera berriak aurkituz, intransigentzia uxatuz, hunkituz eta elkarri bizitza alaituz, inor kanpoan utzi gabe.

“SOINU MOSAIKOA” PROIEKTUA

2017ko urtarrilaren eta otsailaren artean emango da bukatutzat 2013tik egun arte egindako bide luzeari, non proposatutako ekimenak jarri diren martxan. Prozesu luze horren emaitzaz goatzeko, hainbat kontzertu eta sozietatea egingo dira.

Aipatu beharra dugu lehenengo aldiz elkartu direla Espainiako orkestrak halako proiektu bat egiteko eta, ondorioz, estatu mailan proposamen berritzaile bati buruz ari garela. Hala ere, espero dugu musikaren bitartez gure erkidegoa hobetzen lagunduko duten beste hainbat ekimenen hasiera izatea.

Proiektuaren atarikoa: <https://www.youtube.com/watch?v=zMAoOsWeMUU>

Laburpena

Proiektua eratzen duten entitateak eta pertsonak

“Mosaico de Sonidos” proiektua Espainiako Orkestra Sinfonikoen Elkartearen ekimen bat da.

Proiektu hori gauzatzeko, Plena Inclusión Españarekin aliantza eta BBVA Fundazioaren laguntza bilatu da.

Proiektuaren ardatz nagusia Emilio Aragón musika-egilearen musika erabiliko dugu, proiektuaren oinarritzko laguntzailea.

Orkestrak

“Mosaico de sonidos” projektuan Espainiako 14 orkestra sinfonikok eta Plena Inclusión erakundeko 8 erkidegoko federaziok hartzen dute parte. Adimen-desgaitasuna edo garapen-desgaitasuna duten 300 lagunek hartu dute parte Soinu Sormen Tailerretan, zeinak 140 musika-egilek eta orkestretako administrazio-langileek zuzenduta eskaini diren 2016 osoan zehar.

Esku hartzen dute orkestrak:

ANDALUCÍA

Real Orquesta Sinfónica de Sevilla
Orquesta Ciudad de Granada

ASTURIAS

Oviedo Filarmonía
Orquesta Sinfónica del Principado de Asturias

CANARIAS

Orquesta Filarmónica de Gran Canaria
Orquesta Sinfónica de Tenerife

CASTILLA Y LEÓN

Orquesta Sinfónica de Castilla y León

CATALUÑA

Orquestra Simfònica del Vallès

Orquestra Simfònica de Barcelona i Nacional de Catalunya

EUSKADI

Bilbao Orkestra Sinfonikoa

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

MADRID

Orquesta y Coro de la Comunidad de Madrid

Orquesta Sinfónica de Madrid

NAVARRA

Orquesta Sinfónica de Navarra

Proiektuaren helburuak

1. Garapenaren desgaitasuna edo ezintasun intelektuala dutenen eskubideak zein aukera-berdintasuna sustatzea.
2. Gizarte zuzena eta inklusiboa eraikitzeko ahaleginean aurrera egin, horretarako balio berak dituzten eragileen arteko batasun iraunkorrak ahalbidetuz.
3. Musikaren bidez, garapenaren desgaitasuna edo ezintasun intelektuala dutenen parte-hartzea bultzatu.
4. Garapenaren desgaitasuna edo ezintasun intelektuala dutenei musika-formakuntzan laguntza eman, formakuntza hori hobetze aldera.
5. Desgaitasuna duten pertsonen gozatzeko aukera ematea, musika aitzaki harturik, horien bizitzakalitatea hobetzeko asmoz.
6. Orkestra sinfonikoak gizarte-eragile eraikitzaileak bihurtzeko prozesua bultzatu, horien erantzunkizun soziala azpimarratuz.

Heziketa topaketak

Bi heziketa topaketa egin dira Madrilen, 13,30 ordukoa bakoitza, non orkestra parte-hartzaileko bina musikariz eta “La flor más grande del mundo” lanaren egile den Emilio Aragóñez gain, adimen-desgaitasunarekin lotutako hainbat profesionalen ere hartu duten parte. Lehenengo topaketan 50 lagun eta 42 bigarreanean. Topaketen memoria bana egin zen.

Soinu Sormen Tailerrak

Orkestra bakoitzak batez beste 10 tailer egin ditu 2016an zehar, 3 ordu ingurukoak, adimen-desgaitasuna edo garapen-desgaitasuna duten 10 eta 20 lagun bitarteko talde batekin, musika-lanak sortzeko eta, gainera, beste adierazpen artistiko batzuk barneratzeko, dantza esaterako.

“La flor más grande del mundo” lana

Proiektuaren ardatz nagusia “La flor más grande del mundo” (*munduko lorarik handiena*) da, Emilio Aragóñez sortutako lan sinfonikoa. José Saramagoren testuarekin egin den musikatutako ipuina da.

Lan hori, adimen-desgaitasuna eta garapen-desgaitasuna duten lagunek egindako lanekin batera -musika-materialean eta Saramagoren ipuinean oinarrituta- 2017ko urtarilaren eta otsailaren bitartean parte hartuko duten orkestra guztiek joko dituzte.

Kontzertuak

Parte hartuko duten orkestrek “Soinu Mosaikoa” kontzertua 2017ko urtarilaren eta otsailaren bitartean egiteko konpromisoa hartzen dute, denboraldiko kontzertu batean gutxienez. Kontzertuan zehar edo hura hasi aurretik, proiektua aurkezten duen dokumentala emango da.

“Soinu Mosaikoa” pelikula

Ángeles Muñizen zuzendaritza-pean, pelikula 2015ean Madril en egindako topaketan hasi zen grabatzen, eta 2016an zehar parte hartu zuten orkestra bakoitzaren soinu sorrera tailerretan jarraitu zen grabatzen. Hauek dira grabazio-ekipo taldekideak:

Ángeles Muñiz, zuzendaria, gidoia eta ekoizpena

Antonio de Benito López, soinua

José Ignacio Valle López, muntaia

Ángeles Muñizek zinematografia, gidoia, errealizazioa, ekoizpena eta abarreko ikasketak egin ditu. Gidoilari eta errealizadore gisa egiten du lan telebistan, industriako ikus-entzunezkoetan, publizitatean, dokumentaletan eta fikziozko lanetan.

Proiektuaren irudia



Proiektuak duen irudia Euskadiko Entremenos elkarteari orkestra parte-hartzaileak bateratuko dituen irudi gisa erabiltzeko egindako eskaeraren emaitza da. Irudi korporatiboa proiektuaren beste zati bat bihurtu da.

Entremenos 2001ean sortu zen APNABIk sustatuta eta bultzatuta, bere identitatea duen elkarte gisa, desgaitasunen bat duten pertsonen lan aukerak emateko, eskubide guztiak dituzten hiritar gisa praktikan haiek lan egin ahal izateko.


Proiektuaren aurkezpena

“Soinu Mosaikoa” 2015eko urriaren 19ko prentsaurrean, Madrilgo BBVA Fundazioaren egoitzan. Han egon ziren Rafael Pardo, BBVA Fundazioaren zuzendaria, Mikel Cañana, “Mosaico de sonidos”-ren sortzailea eta koordinatzailea, Roberto Ugarte, AEOS-ren bozeramailea, Juan Perez, Plena Inclusiónen Presidenteordea eta Emilio Aragón, “La flor más grande del mundo” lanaren egilea. Ekitaldi honetan Ángeles Muñizek egindako teaserra aurkeztu zen, zeina 4.989 aldiz erreproduzitu den dagoeneko Facebooken.

Komunikazioa eta Sare sozialak

2015eko urrian egindako prentsaurrekotik aurrera, proiektua oso aktibo dago sare sozialetan, proiektuaren komunikazioaren arduraduna den Marta Barbonen koordinaziopean.

Proiektuaren kudeaketa-egitura



Zenbait ondorio garrantzitsu

Orkestra sinfonikoentzako aldaketa-prozesu honetan, “Soinu Mosaikoa” proiektuak goitik beherako aldaketa dakar eta hainbat elementu berritzaile barneratzen ditu, zeinak Madrilgo tokapeketan elkarrekin xehatzen joan ginen.

Lehenengo aldiz elkartu dira 14 orkestra sinfoniko proiektu komunean lan egiteko eta aldatzeko nahia dagoela uzten du agerian.

Proiektu komun honen helburua sormen prozesuetara iristea mugatuta duten eta kulturatik baztertzen diren pertsonen taldean zentratzeak berez aldaketa islatzen duen jarrera uzten duela agerian talde gisa - zenbait orkestrak adimen-desgaitasuna edo garapen-desgaitasuna duten

taldeentzako jarduerak egiten dituzte dagoeneko-. Gizartearengatik eta gizartearentzako lan egin nahi da, hiritar guztientzat, salbuespenik gabe. Beraz, “Soinu Mosaikoa” proiektuan parte hartuko duten orkestrek Nazio Batuen Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Hitzarmenaren 30. artikulua garatzen laguntzen du.

Proiektuan parte hartzen duten adimen-desgaitasuna eta garapen-desgaitasuna duten pertsonekin eta haien ingurukoekin komunikazio eta elkarlanerako estrategia berriak lantzeko aukera, zeinaren bitartez orkestra sinfonikoaren esperientzia artistikoa eta sormeneko areagotuko den.

Errespetutik abiatuta eta komunikazio moduak egokituta - ahoz eta idatziz -, orkestren musikariak taldeko lan dinamika berrien sorle bihurtuko dira, eta emozio-bizipenak zein artistikoak bultzatuko dituzte, gero ikusleei transmititzeko.

2015eko martxoko eta ekaineko topaketak, non Espainiako orkestretako musikari talde handi bat elkartu zen proiektuaren diseinuari buruz eztabaidatzeko, euren gaitasunak, jakintza eta musikaren ikuspegia, orkestrarenak, estrategiak eta abar partekatzeko, berrikuntza da orkestraren jardueran.

Musika aldaketaren motor gisa. Nola ez, talde osoa ados zegoen proiektu honetan guztiok dugun abantailarekin: musika bera. Adimen-desgaitasun edo garapen-desgaitasunak dituzten lagunekin komunikatzeko ahalmenari komunikazio hori benetan, modu eraginkorren eta aberasgarrian egin daitekeela sinesten egiten zaio aurre produktuaren eta musika-joleen kalitateri esker, bai desgaitasuna dutenentzat bai musika-joleentzat ere.

Etorkizunean “Soinu Mosaikoa” agertokian modu berritzailean interpretatzeko aukera, kontzertuaren ikuspegi berritzaile batetik.